bat
Soziolinguistika
aldizkaria

JUAN LUIS GOIKOETXEA
Euskara irakaslea Derioko Institutuan, Mendebaldea elkarteko kide
Helbide elektronikoa: aretxudi@euskalnet.net

"Azpieuskalkia lagunarteko izateaz gain ez ote da giro sozial bateko ere?"

Azken aldion euskalkien garrantziaz eta geroaz asko mintzo gara. Mendebaldea elkarteak egindako lanak eragin nabarmena izan du horretan. Nola uztartzen dira elkarrekin euskararen normalkuntza eta euskalkien egoera? Zein garrantzia du auzi horretan errepertorioaren normalkuntzak?

Mendebalde Kultur Elkartea 1994an sortu zen Euskaltzaindiaren Leioako XIII. Biltzarraren karietara egin genituen lehen bileretan. Euskaltzaindia, beraz, hasieran bertan hor da. Orduko xedea -baita ostekoa ere- bizkaieraren ekarria euskara batuan txertatzea zen. Nahiko da horretarako, une hartan –askoren artean sinaturik- Euskaltzaindiari zuzendu genizkion idazkiak kontsultatzea.

Gertatu izan dena da –euskal idazleei gertatu ohi zaien antzera- euskalkia euskara batura ekarri artean, harrobiko lana egiteko premia zegoela, hau da bizkaiera bera atondu, eguneratu eta adostua, Labayruk eta behar handia eginik izan arren. Ondorioz, arlo hori ere jorratu behar izan dugu, irakaskuntza, administrazioa edo literaturaz gainera.

Erabili izan dugun jokabidea izan da, foro gisara elkarturik interesa darakusten pertsonak batzea- hileroko batzarretan 18 eta Maiatzeko Jardunaldietan 130 aldera-. Gauzatu duguna berbaldi, artikulu, mahaingu-

ru eta halakoez gainera, bost liburu eta bost jardunaldi gauzatzea izan da, dela literaturaz, administrazioko euskara ereduaz eta abar.

Jendartean erreferente garrantzitsu izan gara eta iritzi sortzaile, baina ez taldekideok soilik, inguruan aritu diren lagun guztiak ere hor izan dira eta.

Bizkaieraren aggiornamentoa gauzatu dugula esan daiteke.

Bestalde, euskararen normalkuntza eta euskalkien egoera uztartzen dira, ahozko euskara eta idatzia bereiztu direlarik, euskalkia non, noiz eta norekin finkatzerakoan eta gauza bera euskara batuarekin.

Dialekto geografikoek garrantzia handia dute euskararen etorkizunean. Baina testuinguru urbano eta moderno batean, ardatz geografikoaren aldean ez al da ardatz soziala nagusituko (hots, aldaera sozialak ez al zaizkie aldaera geografikoei gailenduko)?

Seguru asko bai. Kontua da, ordea, ardatz sozialean zer erabiliko litzatekeen. Alemanak, duen indarra duelarik, Suitzan aleman estandarrean idatzi eta irakatsi arren, berbaz dialektoan jarduten dute. Euskal Herrian behin honezkero jakiteko moduan izango gara –nik ez dut estatistikarik baina- ea hirietan euskaraz diharduten gazteek ez ote duten euren herriko euskara erabiltzen –nik uste dudana, edozelan ere Elordietak eta erakutsi bezala Lekeition zalantza barik- beti ere euskara batuaren ukituak dituena izan arren. Behar bada, euskara batuan berba egiteari snob deritze eta, agian, gazte giroan antiintelektuala –ikasgelatik urrundua- da nagusi. Dena dela, Bilbon neuk aurkitzen ditut euskara batuan diharduten 20 urteko gazteak kalerik kale. Gertatzen dena, gatxagoa dela jokabide hori herriko euskara bizi den lekuetan, ezen gazteak euren artean etxekoan ari dira eta euskara batukoa zenbait oztoporekin aurkitzen da taldean integratzeko. Hortxe da arrazoi nahikorik euskalkia eskolara ere eramateko. Galdetuko nuke, dena dela, ez ote doazen euskalkiak eta azpieuskalkiak lagun arteko giroetan indarra hartuz. Dena dela –erdarak alde batera lagata ere- euskalkiak nekazaritzari eta arrantzako bizimoldeari loturik bizi izan direla jakinik eta euskara batua ikasteak ez diela ekarri euskalkian alfabetatzea, euskalkiaren erabilera hori nekez ager liteke eder eta feroso.

Azken baten, gainera, euskalkien bizitza diglosikoan ardatz geografikoa bera ez al da ardatz sozial bilakatuko, erregistro batzuetarako ez ote gara azpieuskalkiaz baliatuko eta beste batzuetarako euskara batuaz edo euskalki literarioaz; eta azpieuskalkia lagunarteko izateaz gain ez ote da giro sozial bateko ere?

Azken baten, gainera, euskalkien bizitza diglosikoan ardatz geografikoa bera ez al da ardatz sozial bilakatuko, erregistro batzuetarako ez ote gara azpieuskalkiaz baliatuko eta beste batzuetarako euskara batuaz edo euskalki literarioaz; eta azpieuskalkia lagunarteko izateaz gain ez ote da giro sozial bateko ere?

Hezkuntzako profesional saiatua zaitugu. Ikasleen hizkuntza gaitasuna jorratzeko lanetan buru-belarri diharduzu. Nola ikusten dituzu egun hiztun gazteak? Zein diagnostiko egiten diezu?

Lehen-lehenik, adierazi beharko da gazteak ez direla bizi erkidego berdi-

Gaurkoz gehiegi dira euskara oso ondo jakinik erdaraz bizi direnak –semielebidunak, osasun ederreko izanik ohean dautzanak-, horretan irakaskuntza ez dela aski ondo baino hobeto frogatu dugu. Irakaskuntzari badagokio euskara ona eta ondo irakastea, harritzen naiz 16 urtez D Ereduetan jardunik urtetan/urteetan ez bereiztea.

netan -Iparraldea, Nafarroa, Autonomia Erkidegoa- eta, beraz, hausnarketa desberdina egin beharko dela, kasurako, Autonomia Erkidegoko Normalkuntzako Plangintza espantsiboaren artean eta Nafarroako egoera amaiurtarraren artean. Ez direla aurkitzen euskal gune beretsuetan Lekeitioko gazteak, Baionakoak edo Tafallakoak, nahiz eta denek ere amankomunean duten hizkuntza gutxituko kide izatea.

Horrekin batera, ezin ahaztuko da irakaskuntzako eredu desberdinetan heziak direla, A,B,D,E,G ereduetan, alegia. Ondorioz, ni D ereduko gazteez mintzatzera mugatuko nintzateke, euskaraz eskola zein ikastoletan ikasten dutenen gainean.

Hirugarrenik, espainolak nahiz frantsesak ez duten arazoa dugu, hots, bizi dugun gatazka giroan, hiztuna zein pentsaera ideologikoko den erabakigarria da euskarara lerratzeko edo erdarara.

Gazteen artean badira mota nagusi bi: bata, euskaraz bizi eta euskaldun sentitzen dena, bestea, erdaldun sentitu edo bizi delarik, euskaraz ere badakiena, neu ere ingelesa jakin arren anglosaxoia sentitzen ez naizen erara. Nik gaurdainokoan neure euskalgintzan baditut bizpahiru sufrikario: 1.- Gaurkoz gehiegi dira euskara oso ondo jakinik erdaraz bizi direnak –semielebidunak, osasun ederreko izanik ohean dautzanak-, horretan irakaskuntza ez dela aski ondo baino hobeto frogatu dugu. 2.- Irakaskuntzari badagokio euskara ona eta ondo irakastea, harritzen naiz 16 urtez D Ereduetan jardunik urtetan/urteetan ez bereiztea; Ez dauzkat lagunik; Zer egin duzu? Ezer! idaztea... Zoritxarrez, D ereduetan gainditzen ditugun ikasle askok ez du zuzentasunean maila minimorik ere ematen –eta ez dut inola ere ahazten irakasleek inguru batzuetan euskara irakasteko zer adore eta ausardia behar duten- eta 3.- honenbeste profesionalek erabakia du dakien euskararekin bizitzea, behar den mailakoa ez dela dakien arren. Ondorioz, sinestezina da zein erraz onartzen diren forma okerrak, zein indar gutxi duen subjektuak erdaren menpeko diglosia egoeran. Zelan uler, bestela, bai euskalkian nahiz batuan halako erabilerak? Neure bizitzan ez dut ikusi txalupa bat/ Txaluparik esan dugunean; edo bizkaierako Lar lodi/lodiegi-ren ordez, lar da, lar bere lar da eta erabili izan denean.

Edozelan ere, prozeduretan eta jarreretan aurreratu dena goraipagarria da, nahiz eta PPren Kontraerreformak halakorik onartu ez. Ondorioa, baina, gehiago da -jarrerak ondo landuta- euskararen sinbolismoa indartzea, praktikan eta egunerokotasunean erabiltzea baino.

Edozelan ere, herri honetan gazteengan larregizko erantzukizuna jartzen da, adineko gehiegi bizi da neguko kuarteletan. Belaunaldi berriei euskara helarazteko –Iñaki Martinez de Lunaren datoz nabil- familia eta irakaskuntza ditugu. Zorigogorrez, familia gehiegik irakaskuntzaren esku laga du oso-osorik zeregin hau. Grezian umea zortzi urterekin estatuaren eskuetara pasatzen zen legez, hemen euskara administrazioaren zeregina da. Delegatu egin da familia abertzale gehiegitan. Harrigarria!

Erematerako, D ereduetan hainbeste lan eta diru xahutu ostean, kasurako, Deustuko Unibertsitatea jartzen zaizu bidean –Bilboko Campusa- erdaldunik erdaldunenek zuzendua -euskaldun fin-fin batzuen lana ere hor ageri den arren, Euskal Filologian edo Zuzenbidean- eraikia desegiten, euskalduna erdalduntzen.

Zure tesian eta egite profesionalean etxeko euskara, euskalkia eta euskara batua behar bezala lantzeko lanean gogor saiatu zara. Zein emaitza eskuratu dituzu gaurkoan arduratzen gaituen gaiari dagokionez?*

Ikasgelan bereiztu egin behar direla atxikitze-ereduko ikasleak –etxetik euskaldun datozenak- eta murgiltze-eredukoak –etxetik erdaldun datozenak-. Entzun egiten ditugu gurasoen kexak Denbora galtzen nago, ama, euskarako klasean! Gainera, gaztelera goi mailakoa irakasten da –terminologian, irakurtzeko liburuetan...– eta euskara, denentzat maila berean aritzean, atxikitze-eredukoen kalterako gertatzen da, ezen 2. hizkuntza moduan azaltzen baita, hots, Selektibitatean eskatuko den mailan, erdaldunentzakoan. Hau da, murgiltze-eredukoena.

Ausubelen ikasketa esanguratsuari jarraituz eta Labayruren esloganа harturik dakigunetik ez dakigunera jo behar dugula. Zelan izan liteke, jaramon egin etxean darabilenak euskara batura kasu egin aldatzea; edo enara berak egunero dioen elaia dela ez ohartaraztea.

Euskara batua eta euskalkia ukipenean bizi dira, Weinreich-ek dioenez, pertsona berak behin banan darabiltzalako. Ukipen gunea, bera, pertsona da, Gernikan bizi delarik nahiz Gasteizen. Ukipenaren paradigmak berdi-berdin balio digu euskalki eta azpieuskalkietarako ere, edo hizkuntza biren arterako. Ukipen linguistikoetan egoera desberdinak dira eta euskararena hizkuntza minorizatuarena da, inguruko estatu hizkuntzek isolaturik bizi dena, nahiz eta euskaldunak eta euskara hemen ziren hizkuntza berriak sortu artean.

Lekuan lekuko euskara, euskalki literarioa eta euskara batua Euskal Diglosia Irazian, teilakatuan, txertatuan bizi direla, elkarri eraginez, elkarrengandik hartuz eta elkarri emanik.

Etxeko euskara ez ikasgelaratzeak euskarazko aberastasun askoren baztertzea eta ezabatzea dakarrela.

Aspaldiko ustea da euskararen batasun prozesuak euskara "noranahi" eramango duela. Hiru hamarkadako ibilbidea dugu eta oraindik goiz bada ere, uste hori zenbateraino da egiazkoa? Zenbateraino ari da betetzen?

Gauza bat da jakitea euskara batua ezinbesteko genuena –Federiko Krutwigek Txillardegiren batua deitzen zuena-, beste bat batasun horrek noranahi eramatea. Euskal Herrian hiru hizkuntza erabiltzen dira. Euskara handi biren artean ari da. Hor da gure superdiglosia.

*. Itaun hau 8.ean osotzen da.

Ikasgelan bereiztu egin behar direla atxikitze-ereduko ikasleak –etxetik euskaldun datozenak- eta murgiltze-eredukoak –etxetik erdaldun datozenak-. Entzun egiten ditugu gurasoen kexak Denbora galtzen nago, ama, euskarako klasean! Gainera, gaztelera goi mailakoa irakasten da –terminologian, irakurtzeko liburuetan...– eta euskara, denentzat maila berean aritzean, atxikitze-eredukoen kalterako gertatzen da

Egia da euskalkien gainean jarrera kontrajarriak daudena, baina euskara batua erdialdeko euskalkietan oinarriturik eraiki zen eta froga daiteke, iritzi kontrajarriotan erdialdekoak bateratsu datozen legez datozela bat periferietako euskalkietan bizi direnak euren artean.

Hala ere, kanpoko erasoa hain bortitza izanik, ez da txikiagoa barrubarrutik egiten den azpijana. Hau da, agintea euskaldunon eskuetan dugun gune, esparru, tokietan euskara erabat garatuta, gailendurik ez aurkitzea ez da inoren errua.

Euskara berriak hogeita hamar urtean ezin sinistuzko aurrerakada egin du, baina hemorragia ez da gelditu, ez Iparraldean, ez eta Hegoaldean, batzuek seme-alabei euskara ez irakatsiz, besteek familiako bizitza erdaraz eginik.

Hemen abertzale eta ez abertzaleen artean bada marra bat, baina sakonagoa da euskaraz bizi gura dugunon eta erdaraz bizi nahi dutenen arteko marra, banderizotasunean bizi garelako ikusi gura ez dugun euskal-marra.

UNESCOk euskara arriskuan dagoela. Bale! Neu ere halaxe bizi naiz, hil artean. Aztertu da eta ondo, jakitea ezinbesteko, baina bizi ez da bizi behar zalantzan, ekintzan baino.

Euskararen egoera ona da, baina ahula. Euskaldunen eta euskararen aldekoen eskuetan dirauen boterea erdaldun erdaltzaleen eskuetan jausirik –Nafarroan legez- zer kolpe jasango lukeen Autonomia Erkidegoan euskarak eta euskal munduak. Gogoan dut hezkuntzako agintea zutenean pairatu behar izan genuen sufrikarioa eta erdaldunen harrokeria.

Euskalkiaz eztabaidatzean jarrera oso desberdinak ikusten ari gara, asko elkarrekin kontrajarriak, ez al duzu uste eztabaida hori arazoaren alderdi bat besterik ez dela? Hots, benetako arazoa euskararen errepertorioa osatzean dagoela, aldaera geografiko eta sozialen normalizazioan?

Egia da euskalkien gainean jarrera kontrajarriak daudena, baina euskara batua erdialdeko euskalkietan oinarriturik eraiki zen eta froga daiteke, iritzi kontrajarriotan erdialdekoak bateratsu datozen legez datozela bat periferietako euskalkietan bizi direnak euren artean.

Edonola ere, eztabaida urteak ixteko ordua dela uste dut eta iritziak lan konkretuetan finkatzekoa. Alde batetik estatusean eta bestetik corpusean. Estatusean euskalkia non eta zertarako dekalogo baten jarriz. Ekintza hau berehala gauza daiteke. Corpusean, gauzatzeak luzetxoago jo lezake, baina ez hiruzpalau urtetik harago. Badakigu ikerketak-eta beti joango direna aurrera.

Euskalkien geroaz eztabaidatzen denean, zeri erreparatzen zaio gehiago euskararen berreskurapen eta normalkuntza prozesuari ala euskalkien biziraupenari? Ez al dira interesgune kontrajarriak?

Egia da euskara batu barik euskalkiak ezin bizi litezkeela. Ideia hau argi distiratsuz ematen zuten iragartzera euskara batuaren gurasoek 1968an Arantzazun. (Euskara XIII, Euskaltzaindia, 1968). Jokatu ere halaxe egin

genuen 1970ean Bilbon euskara batua aldarrikatzen eta gauzatzen –geure Euskalduntzen eta Alfabetatzen liburuak lekuko- hasi ginenok.

Egia da, halaber, euskara batuak idatziaren goi mailako esparrua bereganatu duela, baita ahozkoa ere zenbait funtziotan. Hala ere, ahozko esparru ugaritara ez da iritsi euskara batu hori. Arterik ikastoletan eta 80ko hamarkadatik gora eskoletan –Gerra osteaz ari naiz- milaka gaztek ikasi du euskara batua eta euskara batuan, baina ikasi dutenak ere ez dute senideen artera, ez lagun artera eraman, hots Fishman-ek dioen izpiritu, bihotz eta intimitatearen esparruetara; Mikel Zalbidek deitzen duen interakzio informaletara. Ondorioz, eskolan ikasi arren, erabileran ez da hazi.

Horrekin batera, gazteen arteko euskara murriztua, erkindua zabaldu izan da urterik urtera, betiko euskara moldea saihetsera lagata. Bazirudien sukaldeko janari pil-pilekoaren, poliki onduaren aldamenean fast food zapore gabea dastatzen zela.

Horri gehitu behar zaio, premiarik gabe, euskara batuaren kodifikazio gero eta zehatzagoak –bizkaiera kasurako- gero eta euskara batutik kanporago uztea.

Bestalde, Juan Mari Lekuonak aipatu ohi duenez gizakiak modaren premia duela beti batean aspertu egiten delako, erraz uler daiteke begiak euskalkietara iraultzea, hau da, egunero entzuten genuen euskara bizi, betikora.

Euskararen normalkuntza eta euskalkien biziraupena kontrajarriak? Ez dut uste. Elkarren osogarri bai, konplementario izendatzen du Patxi Goenagak. Euskara batuak gure egunotan, behintzat ez dezake euskalkiaren esparrua bete.

Ez da ahaztekoa bizkaierari dagokionean, eredu idatziak jarraipena izan duela elizan, Labayrun, zenbait ikastolatan, eta ahozko eredu jasoak Bizkaia Irratian, elizan, bertsolaritzan eta sasoi baten, eta ostean Mendebalde Kultur Elkartean, Egunkarian eta abar.

Bizkaierak Bizkaian badu tradizio luzea –euskalki literarioek dutena- eta honenbesteko jendaldearen lehen identifikazioa aldaera horrekin da –idatzian esan gura dut, ahozkoan bistakoa da eta- eta guri dagokiguna da euskara batua ere eurena dela erakustea, ez dela hangoa, ez besterena. Honetan, beti ere, garrantzitsuena euskaldun irauteko gogoa da.

Badira bizkaiera literarioari nortasuna ukatu eta lekuan lekuko euskarak baino ez direla defendatzen duenik. Arrazoitze modu horri hauxe erantzun dakioke: Ideolektoa da, printzipioz, dialektologoak aurkitzen duen errealitate bakarra. Jean Dubois (1979) Beraz, herri bateko aldaera kodifikatu gura izatea, edo bizkaiera literarioa, edo beste eredu bat, aukera kontua da, eta aukeretan tradizioak eta hiztunen gogoak du indarra.

Une honetan, bai tresna teorikoak, nahiz praktika nahikoa dugunean, dagokigun lana da finkatzea, hala euskalkiari dagokion estatusa, nola estatusean dagokion funtziorako corpusa atontzea.

Badira bizkaiera literarioari nortasuna ukatu eta lekuan lekuko euskarak baino ez direla defendatzen duenik. Arrazoitze modu horri hauxe erantzun dakioke: Ideolektoa da, printzipioz, dialektologoak aurkitzen duen errealitate bakarra.

Nik ikasgelan etxekoaren indarra gal ez dadin, idazlana garatzean, adibidez, zirriborroa etxeko euskaran papereratzeko eskatzen diet, askotan ahozkoaren transkripzio eta guzti. Gero, hurrengo urratsean eskatzen zaio zirriborroko hori euskara batuaren kodigoetara.

Bizkaiera literarioa lantzearen aldeko apustua egiten duzu eta horrela etxeko hizkuntza eta euskara batuaren arteko zubi-lana erraztea. Horrek ez al du etxeko hizkuntza murriztuko batuak murrizten duen bezalaxe? Idatzizko kode bakarra lantzearen aldeko iritzia nagusi da, zeuk bizkaiera literarioa ere landu behar dela argudiatu duzu zure doktorego tesian. Azalduko al zeniguke zertan oinarritzen duzun proposamen hori?

Lehenengo, ahozko euskara eta idatzizkoa bereiztea komeni da, bestetik, Euskal Herrian ikasle mota bi direla: atxikitze-eredukoak eta murgiltze-eredukoak. Atxikitze-eredukoak, etxetik dakartena mantentzekoak, idatzian euskara batua ardatz dela, haren parean euren etxekoa alfabeta dezaketela frogatu dut ikasgelan. Alfabetatze horretarako egokia da euskara jaso bat, kasu honetan bizkaiera literarioa.

Ahozkoan, aldiz, euskalkia da ardatz eta euskara batua aldamenean doa. Nire ikasleek gaur istorio bat kontatzen didate, eta bihar Lauaxetaren kritika euskara batuan.

Beraz, planteamendua ez da adin baterarte bizkaieraren kodea eta ostean batuarena, baizik eta euskara batua ardatz eta paralelismo diglosikoan bizkaiera, txikitatik 18 urte arte.

Murgiltze-eredukoetan, euskara batua da ahozkorako zein idatzirako ardatz. Hala ere, gai izan behar dute ikaskideen euskalkia zein Hiru Trukuko abestiak ulertzeko. Euskaraz biziko badira, euskalkia lagun artean kutsatuko zaie.

Bizkaiera literarioak etxekoa murriztu? Bai, egiten du. Mitxelenak ederto idatzirik utzi zigunez, eskolan irakasten den euskara ez da inongo amarena. Eta Itziar Idiazabalek esan zidanez, behin ikasgelara ezkero, berbetak formalizazioa jasaten du. Hala ere, mendebaldean euskara batua baino hurbilago gertatuko zaio ez arlo gutxitan. Nik ikasgelan etxekoaren indarra gal ez dadin, idazlana garatzean, adibidez, zirriborroa etxeko euskaran papereratzeko eskatzen diet, askotan ahozkoaren transkripzio eta guzti. Gero, hurrengo urratsean eskatzen zaio zirriborroko hori euskara batuaren kodigoetara –edo bizkaiera literariokora- aldatzeko, beti ere aldatu behar ez dena ukitu gabe.

Mendebaldeak azken urteotan lan handia egin du mendebaldeko euskararen defentsan eta bere etorkizuna ziurtatu nahian. Euskalki gehiago ere bada, noiz izango du auzi honek konponbide adostua? Posible izango al da Arantzazun lortu zen moduko adostasuna lortzea euskararen errepertorioan aldaera bakoitzari dagokion lekua emateko? Nori dagokio egiteko hori?

Galdera oso zuzen planteatuta datorrela uste dut, ezen Arantzazun akordioak egin artetxuan desadostasun sakon-sakonak erakutsi izan ziren; gaur, aldiz, desadostasunak hain funtsezkoak ez izanik ere, faktore berriak azaldu dira eztabaidara, eta ez txikerrena, talde, elkarte, erakun-

de, nahiz pertsona jakinen interesak edo leitmotivak. Horregatik erabili behar dira estrategia doituak, adostasunik zabalenekoak, azkenik Jagon Sailaren bidez Euskaltzaindiak azken hitza bere izan dezan. Izan ere, erdara hain indartsu dabilen garaiotan, garrantzitsuena euskaran bizi gura duena eroso bizi dadin erdiestea baita .

Edozelan ere, gaurko "Bakoitza bere zoroak bizi du" honetan luzatzea ez daiteke izan euskararako mesedegarri, ezta, ondorioz, ez euskalkirako, ez euskara baturako ere.

Aldarrikapen eta iragarpen ordua baino materialgintzako, tresnagintzako aroa da: bideoak, CDak, testuliburuak...

Aspaldikoa da liskarra estandarizazio prozesua eta euskalkien biziraupenaren arteko auzian. Zertan aldatu dira auzi horren aurrean dauden jarrerak azken hiru hamarkadetan?

Estandarizazioa, 1968agaz erkatuez gero, ikusten dugu galaxiak harago aurkitzen dela, euskara batuan ekoitzi dena begiratzea aski da. Euskalkiak, ostera, -bizkaierara mugatuko naiz honetan- talde gutxi batzuen ardura izan da lantzea. Ez harrobi legez –ikerketa objektu modura-, hori denen zeregina izan da-eta, baina bai aldaera geografiko bizi bezala erabiltzeko erregistro gisa. Horretan, euskara batua erdialdeko euskalkietan oinarriturik eraiki denez eta batuaren egileak kopuruz eta pentsaeraz erdigunekoak izatean, bizkaieraren presentzia urriegia izan da euskara batuan, nahiz eta Bostak Bat taldeko 3000 Hiztegiek eta 20 urtean horrexetan jardun.

Bizkaieraren ikuspuntutik giltzarria da jakitea, ea noraino lortzen dugun geure aldaera euskara batuan ikustea, ez teorikoki soilik, baizik Egunkarian, EITBn, testuliburuetan, eta horretarako, bizkaiera dakitenek leku eta funtzio horiek betetzen aritzea da bide bakarra, bizkaiera entzuteko baino bizkaierako hiztunek egindako euskara batua entzun eta irakurtzeko. Ez baita molde bera Amonak zakurrari isatsa moztu dio irakurtzea edo Amamak txakurrari buztana ebaki dio irakurtzea, biak ere euskara batua izanik. Gainera, nork erabil ditzake bestela, hiztegietan izan arren, elaia; galtzuaπlastoa; berak egin duπegin egin du eta halakoak?

Edonola ere, euskalkiei dagokienean arazoa idatziak sorrarazten duelarik ere, ezin ahantziko dugu euskara batuan bertan ahozko euskarak gordin-gordin dirauela oraindik. Ez dakit non datzan kakoa, araututa ez aurkitzean ala erabakitzeko gogori ezean. Ahozko euskara batuan bertan konpontzeke den bitartean, ezer gutxi kritika genezake euskalkien gainean. Horri gehitu behar zaio irakaskuntzan duen eragin kaltegarria, inork ez baitu argitzen zein azentu eta intonazioz irakurri, eta, ondorioz, erdarenarekin baliatuz. ▮

Bizkaieraren ikuspuntutik giltzarria da jakitea, ea noraino lortzen dugun geure aldaera euskara batuan ikustea, ez teorikoki soilik, baizik Egunkarian, EITBn, testuliburuetan, eta horretarako, bizkaiera dakitenek leku eta funtzio horiek betetzen aritzea da bide bakarra, bizkaiera entzuteko baino bizkaierako hiztunek egindako euskara batua entzun eta irakurtzeko.